


Gabon-aldia 2023

# Mahaia bedeinkatu



Bedeinkatu -bendecir (bene dicere)- hitzak zera adierazten du: ondo hitz egin, laudatu, goraipatu. Prest izango ahal gara bedeinkapenerako, Jainkoaz, pertsonaz eta izaki guztiez ondo esateko. Errealitateari Jainkoaren nahitik begiratu gero, eman izan zaigun guztiaren ontasunaz jabetzen gara eta bedeinkapena sortzen da indar eta samurtasunez. Mahaia bedeinkatzea, mahaikideengatik, janariagatik, biziaren opariagatik esker ona adieraztea da eta mundua denontzako lekua duen mahai bihurtzeko eskaria egitea.

## Gabon gaueko afariko bedeinkapena

*Jauna, gaurkoa bezalako gau batean, duela bi mila urte inguru, Belenen, gure munduko bazter batean, jaio zinen gu pobre eta behartsuongandik gertu egoteko.*

*Mundua familia zoriontsu eta elkartua izatea da gure ametsa: gerrarik, goserik, indarkeriarik, miseriarik gabeko mundua, bake eta zuzentasun, maitasun eta samurtasun gehiago duen mundua. Bedeinka gaitzazu, Jesus, eta bedeinka ezazu gure etxea eta mahaia.*

*Ez dadila inoiz ogi eta lan faltarik izan.*

*Indarra eta samurtasuna izan ditzagula beti anai-arreba bezala bizitzeko eta mundu hobearen alde borrokatzeko, bertan egun on asko eta zu jaio zineneko hau bezalako "gau on" asko egon dadin.*

*Ondo etorria zara beti etxe honetara!*

Amen



## Jaunaren jaiotzaren eguneko bazkariko bedeinkapena

*Aita Jainkoa, Jesusen jaiotzak familian bazkaltzera, mahai beraren inguruan esertzera garamatza.*

*Gaur ... (mahaian gauden pertsonen edo gure bihotzean ditugunen izenak esan) batu gara.*

*Gure artera ekarri nahi ditugu munduan egoera latzak - gerrak, migrazioak, gaixotasuna, bakardadea...- bizi dituztenak.*


*Aita Jainkoa, bedeinka itzazu eta emaezu zure bakea. Bedeinka gaitzazu gure familia abegitsu izan dadin eta munduan "lekuan lekuko" izan gaitzen.*

Amen



Gabon-aldia 2023

# Mahaia bedeinkatu



## Gabon zahar gaueko afariko bedeinkapena



*Urtea amaitzear da, Jesus.*

*Hona hemen nire bizitza eta gauzak, egunero aurkitu eta ikasi dudan guztiarekin.*

*Eskerrik asko aurten ezagutu ditudan pertsonengatik, maitatu ditudanagatik, lagundu eta zorioneko egin nautenengatik.*

*Bedeinka itzazu, eta emaezu ezusteko eta zorionez beteriko urtea!*

*Amen*



## Urte berriko bazkariko bedeinkapena

*Jesus, hastera goazen urte hau urterik onena izan dadila.*

*Adiskide, emaidazu zure eskua eta eraman nazazu zeu zoazen lekura.*

*Elkarrekin joan gaitezela eta ez dadila inor bakarrik eta triste geratu.*

*Bedeinka gaitzazu zeure konpainiaz.*

*Eskerrik asko, Jesus, erronka eta ilusioz beteriko urtea oparitu diguzulako.*

*Biziki gozatuko dut zurekin batera!*



Zorionak eta urte berri on!



Bilboko  
Elizbarrutia  
DIÓCESIS DE BILBAO

